

## PRENTSA-OHARRA

# Hiri-lantegiak eta kaleko musika *Ibaiertzean* jaialdiaren bigarren edizioaren ardatz, ostiral eta larunbat arratsaldez, Etxabakoitz auzoan

Doako lantegiak eta kontzertuak programatu dira Herri Parkean, Urdanoz multzoko 7aren aparkaleku ondoko orubean, non esku-hartze artistikoa egin baita

Ostiral eta larunbat honetan, Etxabakoitz auzoan izango da *Ibaiertzean* jaialdiaren bigarren edizioa, eta bi egunez, atari zabalean, musika, kalea, kultura eta komunitatea izango dira nagusi. Kontzertuak eta lantegiak Herri Parkean izango dira, Urdanoz multzoko 7 zenbakiko aparkaleku ondoko orubean. Iruñeko Udalak antolatzen du jaialdia, Iruñea NOLA? elkartearen eta Etxabakoitz auzoaren laguntzaz.

*Ibaiertzean* jaialdiaren bitartez lantzen dira musikak eskaintzen dituen aukerak komunitatea sortzen duen gizarte-ekintza hezitzaile gisa. Horregatik kontzertuak daude jaialdiaren agendaren barruan, baina ez bakarrik: lantegiak egiten dira eskola eta zentro komunitarioetan. eta esku-hartze artistikoak, espazio publikoan. *Ibaiertzeaneko* jarduerak komunitate-loturak eratzea dute xede nagusi, jarduerak non gauzatu eta auzo horietan, non gizarte-konposizioa oso anitza baita. Auzoetan bizirik dauden tradizio askotarikoak ezagutzea eta musika erreferente garaikideak bilatzea; horra jaialdiaren printzipio gidarietako bat.

Hezkuntza eta Kulturako zinegotzi ordezkari Maider Belokik, eta Iruñea Nola? elkartearen ordezkari Jennifer Chocarrok eta Luis Soldevillak aurkeztu dute antolatutako programazioa eta auzoan egindako esku-hartze artistikoa. Aurten, jaialdirako proposatu diren jarduera kultural eta artistikoez gain, Udalak Radio Patio Irratia programa abiatu du, beste auzo bat (une honetan Txantrea) eta beste biztanle-sektore bat ere, alegia, eskola-komunitatea, engaiatzeko (Radio Patio Irratia García Galdeano IPan gauzatzen ari da).

*Ibaiertzeanen* lehenengo edizioa Sanduzelai auzoan ospatu zen, Arga ibaiaren pasealekuan, Nafarroako etorbideko zubiaren azpian, 2017ko maiatzaren 15etik 20ra, musika-emanaldi, lantegi, zinema eta hitzaldiekin.



### **Arte hiritarreko esku-hartzea**

lazko edizioan Sanduzelaiko zubi azpian horma-irudi handi bat margotu zen bezala, aurten ere itzala utzi nahi da Etxabakoitzen, auzoko gune sinbolikoak berreskuratuz eta edertuz. Auzokideek hala eskatuta, esku-hartze artistikoa eta hiritarra egin da lehen sasiz, lehorturiko zuhaitzez eta aisialdirako etxola txikiez beterik zegoen lurzati batean. Lurzati horretan sasiak jandako kartel bat zegoen, guneari *Herriparkea* izena ematen ziona, eta auzokideek ere izen hori erabiltzen dute tokia izendatzeko.

Esku-hartze artistikoa, bai diseinua bai gauzatzea bera, herritarren partaidetzaz egin da. Zehazki, horma-irudi bat margotu da elkarlanean, zuhaitzak, bideak eta bankuak jantziko dituzten kakorraz-lan oso berritzaileak egin dira, eta auzotarrek eta Jazar sorkuntza artistikoko laborategietako jendeak soinu-instalazioak egin dituzte Iruñea NOLA? elkartearekin batera. Gainera, jaialdiaren edizio honetan, Zitudelatan erakusketa bat ikusgai duen Belborba artista brasildarrak parte hartu du esku-hartzean. Belborbaren ibilbide artistikoan oso ohikoa da Brasilgo komunitate eta kolektibo behartsuenekin lan egitea, eta artistak *Ibaiertzean* jaialdian parte hartu nahi zuen.

### **Lantegiak eta kontzertuak ostiral eta eta larunbateko arratsalde-gauerako**

Jarduera-programa ostiralean hasiko da, 17:00etan, hiri-lutergintzako lantegi batekin, Resonante Sónica Urbanaren eskutik. 17:00etatik 18:00etara ere bai, perkusio afrikarreko eta dantza flamenkoko lantegien erakustaldia egingo da. Hitzordu horien ondoren, kontzertuak egongo dira: 19:00etan, Resonante Basuband taldeak joko du; 20:30ean, Skabidean taldeak; eta 22:30ean, egunari amaiera emateko, María José Llergoren txanda izango da.

Larunbatean, programazioak aurrera egingo du beste lantegi batekin eta hiru kontzertuekin. 18:00etan afro urban eta hiri-dantzako lantegia egingo da. 20:00etatik aurrera, musika hasiko da Nizure Tazuneri taldearekin; 22:00etan La Perlak joko du; eta ondoren, Booty Riots taldeak jai-giroan itxiko du programa.

## **IBAIERTZEAN. ETXABAKOITZ. MAIATZAK 18 ETA 19**

---

- **Maiatzak 18, ostirala. Herri parkea Urdanoz multzoa, 7. Aparkaleku ondoko orubea**
  - **LANTEGIAK**
    - 17:00 Hiri-lutergintza, Resonante Sónica Urbanaren eskutik
    - 17:00 – 18:00 Perkusio afrikarreko eta dantza flamenkoko lantegien erakustaldia
  - **KONTZERTUAK**
    - 19:00 Resonante Basuband
    - 20:30 Skabidean





- 22:30 María José Llergo
- **Maiatzak 19, larunbata. Herri parkea Urdanoz multzoa, 7. Aparkaleku ondoko orubea**
  - **LANTEGIA**
    - 18:00 Afro Urbn eta Danz Klub
  - **KONTZERTUAK**
    - 20:00 – Nizuri Tazuneri
    - 22:00 – La Perla
    - 23:30 – Booty Riots

Iruñean, 2018ko maiatzaren 15ean